

# BILBO ESKOLATIK ANTZERKIRA

2021 -2022

BILBOKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA

PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES DE BILBAO

**MITUSU**

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA  
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES

**B**

**Bilbao**

# AZERIAREN FABULA

## Material pedagogikoa

Antolatzaileak / Organizan

**MITUSU**

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA  
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES

**Bilbao**

Dirulaguntzaileak / Patrocinan



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Laguntzailea / Colabora

**AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO**

Bazkidea / Asociado

**BIARGI SAREA**

# Eszenak

Hona agerkizuneko eszenarik garrantzitsuenen argazki bana.  
Azaldu horietako bakoitzean zer gertatzen ari den. Bi jartzea ahaztu zaigu.  
Marrastuko al dituzu?

## Aurkezpena

.....

.....

.....

.....

.....

.....



## Aitona eskopetarekin

.....

.....

.....

.....

.....

.....



## Belea hegan

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Azeriak eta saguak gazta nahi dute .

.....

.....

.....

.....

.....



Saguak bere laguna laguntzen du

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Amaierako eszena

.....

.....

.....

.....

.....


.....



# Pertsonaiak

Hona agerkizuneko pertsonaia nagusiak marraztuta.

Horietako bakoitzari buruzko zerbait idatziko al duzu? Nahiago baduzu, imajina ezazu zertan pentsatzen ari diren edo deskriba iezaiozu norbaiti nolakoak diren azaldu behar izango bazen bezala.



**Txantxangorria**

-----  
-----  
-----  
-----



**Azeria**

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

**Sagua**



-----  
-----  
-----  
-----  
-----





## Eszenografia (dekoratuak)

Hemen dituzu eszenografia eta erabiltzen diren objektuak, aurretik eta atzetik, baita agertzen diren gauzen zerrenda ere. Zirkuluetan dagokien zenbakia jarriko al duzu?



1. Zumar zaharra (azeriaren gordelekua)
2. Iturria
3. Ura jasotzeko ontzia
4. Kea ateratzen den tximinia
5. Argien dorrea
6. Kea atzeratzen den tximiniaren atzeko zuloa.
7. Amonak iturria ixteko erabiltzen duen hesia
8. Haizeak udazkenean mugitzen dituen udazkeneko hostoak
9. Azeriak lapurtzen duen oiloa.
10. Aitonaren maskara, kapela eta sudurrarekin.
11. Aitonaren aizkora.
12. Titiriteroak erabiltzeko prest dauden txotxongiloak.
13. Ur-ponparen etengailua.
14. Eskopeta.
15. Udaberriko loreak ateratzeko hagaxka.
16. Azeria oilategira sartzen denean agertzen den lumapoltsa.
17. Neguko elur gisa erabiltzen den konfeti-poltsa.

## Beste jarduera batzuk

Gure antzezlanak ikusi baino lehen (edo ondoren), gauza asko egin ditzakezue probetxua ateratzeko.

Hona zerrenda bat, iradokizun gisa:

- Alegia-liburu asko dago, Esopo, Fedro, Hitako Artzipreste, don Juan Manuel, Iriarte, Samaniego, Lafontaine eta beste hainbat alegi-idazle garaikideenak. Irakurri eskura daukazun alegiaren bat.
- Panpinek hitz egin gabe, keinuekin bakarrik, gauza asko esaten dituztela ikusiko duzu. zuek istorio bat antzeztuko al zenukete mimikarekin bakarrik?
- Ba al dakizu ahotsarekin animalia bat imitatzen, titiriteroek egiten duten moduan?
- Hitz egizu aitona-amonekin edo eurek dakizkiten ipuinak edo istorioak kontatu ahal dizkizuten pertsona nagusiekin.
- Mendira ateratzen zaretenean, gertura zaitezte iturri edo errekatxo batera eta bila itzazue edatera doazen animalien aztarnak uretatik gertu.



- Zure etxe ondoan, bizi zaren hirian zuhaitzak, txoriak eta beste animalia batzuk daude. Nola dute izena? Ikas ezazu animalia edo landareren baten izena.
  - Dibertigarria litzateke herri txikiren bat bisitatu eta jendea nola bizi den ikustea. Oilorik al daukate? Negurako egurrik biltzen al dute? Nola heltzen zaie ura? Iturriarik al dago? Seguruenik inguruetan bizi den azeriari buruzko pasadizoak kontatu ahal izango dizkigute
  - Agerkizuna ikusi eta gero. Zer egin dute titiriteroek urtaroen iragatea adierazteko?
  - Zer egiten dute azeriak eta saguak gazta lortzeko?
- Egile hauen musika erabili dugu: Vivaldi, Haendel eta P. Sarate. Bilatu eta entzun musikagile berdinen beste melodia batzuk.
  - Gureen moduko txotxongiloak egitea pixka bat garestia da, baina zuek beste batzuk errazago egin ditzakezue, kartoi mehean ebakita eta makila bati lotuta.

## Konpainia



Hogeita hamabost urte baino gehiago daramatzagu bideak zeharkatzen, gure panpinekin, kale-kantoietan, plazetan, antzoki eta karpetan txotxongiloak eta musika egiten.

Gure antzerkia guztientzako da beti: haurrentzat, pertsona sentibera eta adimendun gisa hartuak, eta oraindik ere samurtasunerako eta antzerkiaren jai-jolaserako tokia gordetzen duten helduentzat.

Zazpi disko editatu ditugu, hiru liburu eta hogeita hamar bat agerkizun sortu ditugu, mundu osoko hogeita hamazortzi herrialdetara eramán ditugunak, saria eta aintzatespenak jasoz. Azkenekoak, hauexek:

2005 Max sarietarako izendapena

2007 Ikuskizun onenari saria: *Drac d'Or* Lleidako 18. Fira de Teatre de Titelles-ean

2008 Koherentziari eta gizarte-konpromisoari saria, 24. Mostra Internacional de Titelles a la Vall d'Albaida-n.

2009 **Haurrentzako eta Gazteentzako Antzerkiaren Sari Nazionala.**

2011 *Drac d'Or* de les Autonomies saria 22. Lleidako Fira de Teatre de Titelles-ean.

Gure emankizunik onena hurrengo izango dela uste dugu.

**Emankizuna ikusi eta gero helbide honetara mezu bat bidal diezagukezu:**  
[titiriteros@titiriteros.com](mailto:titiriteros@titiriteros.com)

**Edozein zalantza, iradokizun edo lanari edo konpainiari buruz sortzen zaizkizun kontu guztietarako.**